EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

VITORIA - GASTEIZ 2008

GIZONAK, BERDINTASUNA ETA MASKULINOTASUN BERRIAK

IZENBURUA: *Gizonak, berdintasuna eta maskulinotasun berriak*

EDITOREA ETA EGILEA: EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz

TESTUAK: Ander Bergara, Josetxu Riviere, Ritxar Bacete

DATA: 2008ko Uztaila

ALE-KOPURUA: 34.000

DESKRIBATZAILEAK: Gizonak, berdintasuna, maskulinotasun berriak, gidak

ILUSTRATZAILEA: Ibon Garagarza

AURREINPRIMATEGIA: Avance Gráfico

INPRIMATEGIA: Printek, S.A.

ISBN: 84-89630-15-1
978-84-89630-15-4

LEGE GORDAILUA: BI-2213-08

Salneurria: 5 euro

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 7

1. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA 11

2. GIZONAK BERDINTASUNA GEHIAGO ERRESPETATZEN DUTEN POSIZIOETARANTZ ALDATZEKO ARRAZOI BATZUK 15

3. GIZARTERATZEA ETA MASKULINOTASUNAK 19

4. MASKULINOTASUN HEGEMONIKOA 25
   4.1. Gizonak eta boterea 27
   4.2. Gizonak eta emozioak 28
   4.3. Maskulinotasuna eta arriskuaren kultura 29

5. GIZONEN GENERO ARAZOAK 31

6. INDARKERIA MASKULINOAK ETA INDARKERIA MATXISTA 37
   6.1. Emakumeen aurkako indarkeria 39
   6.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko mito batzuk 40
   6.3. Mikromatxismoak 41
   6.4. Maitasun erromantikoaren ideala eta bikote harremanak 42

7. GIZONAK BERDINTASUNAREN AURREAN 43
   7.1. Alor sinbolikoko aldaketen inguruko datu batzuk 45
   7.2. Benetako aldaketei buruzko datu batzuk 46
   7.3. Zer gertatzen da orduan berdintasunarekin? 47

8. ALDAKETA GIZONENGAN 49
   8.1. Lan pertsonalerako edo gizonen askapenerako taldeak 51
   8.2. Gizonak berdintasunaren alde 51

9. GIZONEN ALDAKETARAKO IDEIA BATZUK 53

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA 57



AURKEZPENA

Eskuartean daukazun gida hau *Gizonduz* programaren barruan prestatu da; Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da programa hori, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak gidatutakoa eta Emakundek-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatutakoa, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde gizonen inplikazioa bultzatzeko.

Gidaren helburua gizonen eta berdintasunaren inguruko gaiak ezagutzera ematea da, hau da, generoan oinarritutako gizarteratzea nola eragiten die gizonei, maskulinotasun tradizionalak eta hegemonikoak zer ezaugarri eta zer ondorio dituen, zertaz hitz egiten dugun maskulinotasun berrietaz ari garenean, eta abar. Hori guztia emakume eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko gizonen aldaketa beharrezkoa dela kontutan hartzen duen ikuspuntutik.

Emakumeak lan merkatuan orokorki sartzea, hezkuntzaren maila guztietan parte hartzea, prestakuntzara, kultura arlora eta erabakiak hartzeko eremura errazago sartzea bezalako aldaketek gizarte justuago eta berdintsuagorantz egiten ari garen bidean aurrera egiteko aldaketa mesedegarriak ekartzen dituzte. Hala ere, emakumeek gizartean daukaten papera aldatzearen urrats handi hori eta betidanik gizonezkoenak izan diren arloetan parte hartzen hasteak ez du ekarri gizonek beren gain hartzea ez erreprodukzio lana ez emakumeek egin izan dituzten gainerako lanak ere. Egiazko berdintasuna lortzeko, emakumeek eman dituzten aurrerapausoekin batera, gizonen parte eta inplikazioa ezinbestekoa da; izan ere, berdintasuna lortzeko prozesuak pertsona guztiei eragiten die, gizonei eta emakumeei, eta denentzako da mesedegarria.

Horregatik, material honen helburua zera da, gizonak sentsibilizatzea eta gaur egungo sistema patriarkalak dakartzan bidegabekerien gainean hausnar dezaten bultzatzea, sistema horrek emakumeak egiturazko mendekotasun egoeran jartzen baititu, eta bestalde, sistema horren oinarri diren sexuaren araberako estereotipo eta rolek gizonentzat dituzten ondorio negatiboei buruz hausnartzea.

Laburbilduz, eredu sozial berri demokratikoagoa, justuagoa eta berdintasunezkoagoa eraikitzea izango da mende honen erronka. Horretarako, ezinbestekoa da gero eta gizon gehiago egotea maskulinotasun eredu tradizionala zalantzan jarriko dutenak, sistema patriarkalak eskaintzen dizkien pribilegioei uko egiteko prest daudenak, gaizki ulertutako maskulinotasunaren kargatik askatzeko prest daudenak, eta emakumeekin batera modu aktiboan pertsona guztientzako mundu hobeagoa lortzeko konpromisoa hartuko dutenak. Mundu berri horrek giza garapenerako emakumeek eta gizonek dituzten aukerak handitzea ahalbidetuko du.



Izaskun Moyua Pinillos
EMAKUNDE/Emakumearen
Euskal Erakundeko zuzendaria

1. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna printzipio juridiko, etiko eta politiko unibertsala da, gure gizartean errotuta dagoena eta pertsonen arteko harremanetan presente dagoena. Eta horrez gain, giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan ere aitortzen da. Ildo horretatik, NBEren Batzar Orokorrak 1979an onartutako emakumearen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeko Konbentzioak, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa aldarrikatzen du. Amsterdamgo Itunaren bidez, emakume eta gizonen arteko berdintasuna Europar Batasuneko oinarrizko printzipio gisa formalki finkatzen da. Bestalde, Espainiako Konstituzioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak berdintasunaren eta sexu arrazoiengatik ez diskriminatzearen eskubidea aldarrikatzen dute, eta botere publikoei pertsonen arteko berdintasuna erreala eta eraginkorra izateko baldintzak prestatu eta oztopoak ezabatzeko obligazioa ezartzen die, berdintasun juridikoak ez baitu beti benetako berdintasuna ematen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, xede nagusitzat du berdintasunezko gizartea lortzea, pertsona guztiak libre eta autonomo izango diren gizartea, hala eremu publikoan nola pribatuan, beren gaitasun pertsonalak guztiak garatu eta erabakiak har ditzaten, ohiko rolek ezarritako sexuaren araberako mugak izan gabe; emakumeen eta gizonen portaerak, nahiak eta premiak berdin baloratu eta bultzatuko dituen gizarte bat, alegia.

Betidanik gizonek eta emakumeek gure gizartean izan duten rola modu garrantzitsu eta ezberdinean aldatzen ari da. Aldaketa bereziki agerikoa eta esanguratsua da emakumeen kasuan. Lan merkatuan gero eta gehiago parte hartzea; hezkuntzaren maila guztietarako sarbidea izatea; prestakuntzan eta kulturan presentzia handiagoa izateak, eta neurri txikiagoan, baita botere eta erabakiak hartzeko alorrean ere, zenbait aldaketa positibo bultzatu ditu gizartean, eta horiei esker, aurrera egiten gara emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean; aldaketa horiek ez lirateke gertatuko mugimendu feministak egindako beharrezko ekarpenik gabe eta emakumeen, eskubideen alde anonimoki lan egin duten emakume guztien lanik gabe.

Hala ere, lan merkatuari, gizarte eta politikan parte hartzeari, etxeko lanak egiteari, emakumeen aurkako indarkeriari edo txirotasunaren feminizazioari buruzko datuek gizarte ezberdin baten isla izaten jarraitzen dute, eta emakume eta gizonen harremanetan eta gizarte posizioetan hierarkizazioa existitzen dela erakusten dute. Egoera horren jatorria sexuaren araberako jarrera soziokulturalen ereduetan dago; eredu horiek emakumeei ematen diete etxeare-

kin loturiko erantzukizuna, eta gizonei aldiz arlo publikokoa, balorazio eta aitorpen ekonomiko eta sozial oso ezberdinean oinarrituta.

Bestalde, emakumeek berdintasunerako eskubidea dutela onartzearen inguruan gero eta adostasun handiagoa dago gizartean. Era berean, gizarte justiziaren alde ere gizonek parte-hartze handiagoa izan behar dutela eta erantzukizuna partekatu behar dela ere onartzen da. Horretarako, etxean egin beharreko lanak, familiakoak eta zaintzakoak, eta beraien bizitzetan posizio berdintsuagoak eta sexismorik gabekoak hartuz. Hortaz, emakumeengan gertatu den aldaketak, lanaren, gizartearen eta kulturaren arloan sartu denetik, funtsezko ekarpena egin dio gure gizartearen garapenari. Baina gizonen aldaketa oraindik egiteke dago, berdintasunaren aldeko borrokan eta praktikan txertatu behar dute, gure demokraziaren aurrerapena horren baita baitako hein handi batean.

Elkarbizitza eredu hori ez da emakumeentzako bakarrik ona izango, gizonentzako eta gizarte multzoarentzako ere izango da. Egia da gaur egungo gizarte sistema patriarkalak gizonei, talde gisa, pribilegio batzuk eskaintzen dizkiela: Kasu gehienetan diru-sarrera, boterekota eta alor publikoan autoritate handiagoak dauzkate, eta gehienetan emakumeek egindako etxeko lanen eta zaintzaren onuradun dira. Hala ere, rol gogorretan eta sexuaren araberako espektatibetan oinarritutako sistema horrek gizonak ere kaltetzen ditu. Gizonen bizi-itxaropena txikiagoa da emakumeena baino, eta joera handiagoa izaten dute droga-mendekotasuna, trafiko istripuak, laneko istripu larriak, indarkeriazko heriotza eta kartzelaratzea jasateko.

Argi esateko, emakumeak baztertzeaz gain, emakumeak zein gizonak asetzen ez dituen gizarte batean bizi gara. Horregatik, mende honetako erronka eredu sozial berri demokratikoagoa, justuagoa eta berdintasunaren alde gehiago egiten duena sortzea izan behar da. Horretarako, funtsezkoa da maskulinotasun eredu tradizionala zalantzan jartzeko gero eta gizon gehiago prest egotea; sistema patriarkalak eskaintzen dizkieten pribilegioei uko egiteko; maskulinotasun tradizional edo hegemonikoen kargetatik askatzeko, eta emakumeekin batera, pertsona askeago eta osoagoez osatutako gizarte berria lortzeko modu aktiboan konprometitzeko. Berdintasunak, gure bizi-horizontea zabaltzen laguntzen duen neurrian, pertsona hobeak egiten gaitu, eta ondorioz, gizonak gizonago egiten ditu.



2. GIZONAK BERDINTASUNA GEHIAGO ERRESPETATZEN DUTEN POSIZIOETARANTZ ALDATZEKO ARRAZOI BATZUK

Berdintasunarekin lotutako gaietan gizonen kontzientzia eta inplikazio falta, gai horiei uko egitea eta batzuetan baztertzea, alde batera utzi edo batzuetan baztertzea oztopo handia izan da emakumeen aurrerapen sozial eta pertsonaletan, baita gizonen eta gizartearen aurrerapenetan ere; horrez gain, gainditzeko zaila den muga ere bada berdintasuneko politika publikoentzat.

Gizarteak gizonengandik espero du haiek jarrera, pentsamolde eta praktika berdintzaileagoak izango dituztela eta hala izan dadin eskatzen die eta horretan laguntzen ditu. Ideia horien oinarrian daude hainbat arrazoi politiko, ideologiko eta etiko. Arrazoi horiek berdintasuna elkarbizitza balore bat eta giza eskubide bat izatearekin lotuta daude.

Gizonek berdintasunerantz aldatzeak haien inguruko emakumeen onura zuzenak eragiten ditu. Adibide gisa, zaintza lanak modu irregularrean banatzetik berdintasunezko inplikaziozko egoerara igarotzeak, emakumeak denbora gehiago izatea eta pertsona gisa eta alor profesionalean garatzeko aukera gehiago izatea ekar dezake.

Berdintasunak gizonentzako onura zuzenak ere baditu. Berdintasunaren alde gehiago egiten duen gizona izateak beste pertsonen zaintzan erantzukizun handiagoa hartzea dakar, eta baita norberaren zaintzan ere. Auto-estimua igotzen du; abantailen artean, garapen pertsonalean laguntzen du, eta emakumeekin eta beste gizon batzuekin harremanen kalitatea hobetzen du, besteak beste.

Era berean, gizonak berdintasunaren alde gehiago egiten duten posizioetarantz aldatuz gero gizarte osoak gozatuko dituen arrazoi praktikoak daude, onura zuzenak. Izan ere, Giza Garapen Tasa altuena duten herrialdeak, hau da, askatasunak eta pertsonen gaitasunen garapena gehien errespetatzen dituzten herrialdeak, berdintasun gehiago duten herrialdeak dira. Baina gerta liteke logika alderantzizkoa izatea, hau da, berdintasun gehien duten herrialdeak edo emakume eta gizonen arteko berdintasunean lorpen handienak egin dituztenak gehiago garatzea eta bertako pertsonen bizi-kalitateak gora egitea. Horren arrazoia da berdintasuna ongizaterako tresna bat dela bazterkeriak eta marjinazioak eragiten duten oztopo ekonomikoaren aurrean.

3. GIZARTERATZEA ETA MASKULINOTASUNAK

Sexua pertsonek dituzten ezaugarri biologikoekin lotutako kategoria da. Hortaz, arra/emea banaketa ezartzen da, denboran zehar eta kultura ezberdinetan aldatzen ez diren kategoria deterministak.

Generoa, aldiz, gizarteak kulturalki sortutako kategoria da, gizarte eta kultura bakoitzean femenino eta maskulino gisa zer ulertzen den definitzen duena. Hortaz, testuinguru zehatz horretan zer balore, jarrera eta itxaropen diren emakumeenak eta zeintzuk gizonezkoenak zehazten da. Femeninoa dena eta maskulinoa dena ikasi egiten da, eta hortaz, alda daiteke. Generoak azalduko lituzke gure gizartean emakume eta gizonen arteko desberdintasunak.

Gizon edo emakume, mutiko edo neskato, izaten ikasi egiten da, eta definizio hori jaio aurretik ere baldintzatuta dago (izena erabakitzeko orduan, logelak apaintzeko orduan, arropa erosterakoan...). Gizakiak direna izateko ikastera beharturik daude, eta generoa ikastea familiak, eskolak, erlijio ezberdinek eta bizi garen gizarteak erakusten digun irakasgai garrantzitsuenetako bat eta lehenengoetarikoa da. Hain da garrantzitsua ikaspen hori, horretan oinarrituz eraikitzen direla nortasun pertsonalaren funtsezko hainbat ezaugarri. Elkarbizitza arautzen duten arau eta balore horiek barneratzera, ulertzera eta onartzera daraman prozesu horri gizarteratzea deitzen diogu. Prozesu hori eraginkorra da arau eta balore horiek errespetatzeko betebeharra unibertsala delako (pertsona guztiek bete beharrekoa) baina eraikuntza sozialaren ulermen sexistaren arabera bereizia eta ñabartua dago. Hortaz, ezarritako arauak betetzen dituena saritzen da, eta hori egiten ez duena zigortu edo baztertu.

Horrenbestez, neskato eta mutikoak emakume eta gizon bihurtzen dira, sexu bakoitzean egokitzat jotzen diren jarrerak bultzatuz eta beste alde batetik ezarritako rol eta estereotipoei jarraitzen ez dieten jarrerak baztertzen dituen gizarteratze prozesuaren bidez.

Prozesu horrek ez du pertsona guztietan eragin bera izaten, ez dira eredu berberak erreproduzitzen, baina gehiengoak jarraitzen dituen jarrera ereduak sortzen dira, emakumeei eta gizonei egozten zaizkien estereotipoak (femeninoa eta maskulinoa dena) erreproduzitzen dituztenak.

Bizi garen gizartean eta kulturan, gizarteratzeak ondorio larriak ditu emakume eta gizonen bizitzetan. Sexismoa pertsonek beraien gaitasunak garatzeko mugatzaile *natural* bat da eta

ondorioz, bakarkako zein taldeko askatasunerako oztopoa ere bada. Sistema patriarkal batean gertatzen den gizarteratze sexistak emakumeak baztertu eta zapaltzen ditu, eta gizonak mugatu.

Genero estereotipoek nola funtzionatzen duten:

Norbaitek honelako jarrera duenean	**Neskatoa bada, horrelakoa dela esaten da:**	**Mutikoa bada, horrelakoa dela esaten da:**
Aktiboa	Urduria	Geldiezina
Tematia	Burugogorra	Nekaezina
Sentibera	Delikatua	Emagizona
Trebea	Desatsegina	Bere buruaz ziur
Desinhibitua	Pikaroa	Atsegina
Esanekoa	Mantsoa	Ahula
Jenio bizikoa	Histerikoa	Grinatsua
Ausarta	Inpultsoz jokatzen du, pentsatu gabe	Kementsua
Barnerakoia	Lotsatia	Gauzak ondo pentsatzen ditu
Jakin-nahia duena	Kuxkuxeroa	Bizkorra
Zuhurra	Zentzuduna	Koldarra
Ez badu konpartitzen	Berekoia	Berea dena babesten du
Ez bada inoren mendean jartzen	Oldarkorra	Gogorra
Iritziz aldatzen badu	Apetatsua, aldakorra	Bere akatsak ikusteko gai

Taula hurrengo lanetik hartu dugu: Vázquez, Norma; El ABC del género, Equipo Maíz Elkartea.

Jarrera bera modu ezberdinean baloratzen da egilearen sexuaren arabera. Baina gaitasun jakin batzuk modu ezberdinean bultzatzeko ere hezten da. Hortaz, «delikatuegia» den mutiko bat zuzentzen da, bere sendotasun eredua ez delako estereotipo maskulinoaren barruan sartzen.

Kontuan izan behar da ez direla kontzienteki eginiko hausnarketak, ezta sormen indibidualak ere, baizik eta gizarteratze sexista baten ondorioz sortutakoak. Gizarteratze prozesu horrek genero estereotipoak naturalizatu egiten ditu, eta eredu nagusien makineria sinboliko eta estrukturalak partekatu eta bultzatu egiten dituenez, ikusezinak bihurtzen dira.

Hori dela-eta, gizarteratze sexistaren bitartez, homogeneotasun handia lortzen da jarrerei, zaletasunei, sentimenduei, harremanak egiteko moduari eta etorkizunerako itxaropenei dagokienez. Horrek guztiak «izan behar denaren» itxaropen eta irudi sozialen egitura sinboliko eta funtzionala osatzen du eta erreferentzia sistema bat ere sortzen du, guk oinarri gisa erabiltzen duguna gure izaera eraikitzeko, ereduari jarraituz edo hari kontra eginez.

«Izan behar» horiek jasotako arau eta jarrera multzo gisa definitzen diren genero rolak dira, paper eta itxaropen multzo bat, talde edo gizarte sistema jakin batean gizonezkoekin edo emakumeekin lotutakoak. Hortaz, gizonak rol maskulinoarekin lotzen dira, gizartean prestigioa duen rol bat eta alor publikoarekin lotzen dena. Gizonak sendoak, aktiboak, independenteak eta ausartak izango direla espero dugu. Bestalde, emakumeak rol femeninoarekin lotzen dira, prestigio gutxi duen rol bat eta alor pribatuarekin lotzen dena, etxeko lanekin edo zaintza lanekin. Emakumeak sentiberak, pasiboak, mendekoak eta beldurtiak izan daitezen espero da.

2007. urtean bigarren hezkuntzako hainbat ikastetxetan Berdintasunaren Aldeko Arabako Gizonen Taldeak egindako tailer ezberdinen emaitzek erakutsi dute generoko estereotipo eta rolak indarrean daudela eta oraindik ere indar handia dutela. «Gizonak nolakoak dira? eta emakumeak?» eta antzeko galderen aurrean, talde guztietan nerabeak, neska zein mutil, ados egon ziren emakumeak horrela deskribatzen: sentiberak, histerikoak, intuizioz jokatzen dute, maitekorrak, kuxkuxeroak, detaile zaleak, garbiak, beldurtiak Gizonak definitzerako orduan hurrengo adjektiboak erabili zituzten: arriskua maite dute, bortitzak dira, kirolzaleak, desleialak, aktiboak, basatiak, despistatuak. Ez da huskeria tailer guztietan irudi estereotipo berdinak errepikatzea.

Gizarteratze prozesuan kontuan izan beharreko beste elementu garrantzitsu bat hizkuntza da, ahozkoa zein idatzizkoa, kulturako adostasunen eraikuntza sinbolikoa denez, erabileraren arabera genero harremanen berdintasunezko irudi berriak azaldu, babestu eta sortzen lagun dezake, edo ezberdintasunei eusten eta haietan sakontzen jarraitu. Horregatik, hizkuntzaren bidez irudikatzen dugu bizi garen mundua, nola arrazoitzen dugun, nola identifikatzen, sentitzen eta kokatzen garen. Baina hizkuntza horrek maskulinoan bakarrik hitz egiten badu, hizkuntza sexista da, gizonak eta emakumeak berdintasunezko baldintzetan ordezkatzen ez dituena eta ezberdintasun egoerari eusten laguntzen duena. Maskulino generikoa «gizadia» edo «pertsonak» bezalako kontzeptu barne-hartzaileekin ordezteak lagundu egiten du emakumeak agerikoago egiten, baina baita, maskulinoaren gehiegizko presentzia samurtzen.

Kontuan izan behar da, hala ere, genero kontzeptuaren oinarria ez dagoela estereotipoetan, roletan edo hizkuntzan bakarrik. Generoak gizon eta emakumeen benetako erlazio ez berdintasunezkoak deskribatzen ditu, eta harreman horiek nola barneratzen diren.

Gizarteratze mekanismoen barruan, oso garrantzitsuak dira gizon eredu edo maskulinotasun erreferenteak. Familia funtsezkoa izan daiteke jarrera berdintzaileagoak bultzatzeko prozesuan. Berdintasuna barneratuta daukan aitaren eredua oso garrantzitsua izan daiteke haurrarentzat, maskulinotasunaren erreferente berriak eraikitzen lagun baitezake. Zaintza lanak eta konpromisoa bere gain hartuko dituen maskulinotasun batenak, alegia.

Homofobia, maskulinotasunaren ideologia patriarkala iraunarazteko beste oinarrizko mekanismoetako bat da. Gizon heterosexualaren ereduaren definizioan femeninotzat jotzen diren jarrerak ukatzen dira, baita jarrera horiek dituzten gizonak ere. Ukatze hori gizonen artean dauden afektu, intimitate eta konplizitate harremanak mugatu eta zigortzen dituen sexualitate maskulinoaren kontzeptu heterosexualak laguntzen du. Horrela, eredu hegemonikotik pertsona homosexualak «ez hain gizon» edo «ez maskulino» gisa baloratu eta alde batera uzten dira.

Kultura bakoitzak gizarte horretako gizonen jarrera, jokamolde eta itxaropenak gidatzen dituzten kodigo, estereotipo eta rol jakin batzuk ditu; horregatik, maskulinotasunaren definizio kultural bat existitzen dela esan dezakegu, nortasun maskulinoak zeharkatu eta baldintzatzen dituena. Hori dela-eta, gizonengandik espero duguna, zer diren eta gizon talde gisa zerekin identifikatzen diren horrek, gizakiak eraikitako zerbait da; horregatik, maskulinotasuna definitzen duten ezaugarri horiek ez dira naturalak edo jatorrizkoak, baizik eta gizartearenak eta ikasitakoak. Horrek ez du esan nahi nortasun maskulino bakarra edo maskulinotasun eredu itxia existitzen denik, errealitateari erreparatzen diogunean gizon izateko modu anitz aurkitzen baititugu, adinak, gizarte klaseak, etniak, sexuak edo aukera sexualak eta abarrek baldintzatutakoak; horregatik, gizarte eta une historiko bakoitzeko maskulinotasun eredu menderatzaile edo hegemonikoei buruz hitz egin dezakegu, baina gure gizarteko nortasun maskulino eta gizon izatearen modu ugariei buruz ere bai.

Gizonak gizadiaren zati dira, baina jarraibide natural eta gizadi osoaren eredu gisa aurkeztu dute beren burua. Horrekin, interpretazio eta inposizio unibertso sinboliko hegemoniko oso bat irudikatzen dute.



4. MASKULINOTASUN HEGEMONIKOA

Maskulinotasun tradizionalaz ari garenean, balore, sineste, jarrera, mito, estereotipo eta jarrera zehatz batzuei buruz hitz egiten dugu, gizonak daukaten botere eta autoritatea zilegi egin eta martxan jartzen dutenak.

Androzentrismoa munduaren ikuspegi partzial bat da, gizonek egindakoa gizadiak egindakoa dela kontsideratzen duena, edo alderantziz, gizadiak egin duena gizonek eginikoa dela dioena. Gizonentzat ona dena gizadiarentzat ona dela sinestea dakar, eta gizonen esperientziak gizakien esperientzia biltzen duela baita haien neurria ezarri ere. Laburrean esateko, androzentrismoak gizonek egindakoa bakarrik baloratzen du.

Patriarkatua esaterakoan gizonaren autoritatearen ideian oinarritutako antolaketa politiko, ekonomiko, erlijioso eta soziala ulertzen dugu, gizonen nagusitasuna emakumearen gainetik dagoeneko eredua.

Ondorioz, maskulinotasun tradizionala munduaren ikuspegi androzentrikoan oinarritzen da gizonaren autoritate eta lidergoaren ideian oinarritzen den sistema sozial eta kultural patriarkalaren barruan. Gizonei emakumeen gainetik nagusitasuna ematen dien sistema bat; boterearen produkzio eta erreprodukzio egiturak neurri handi batean gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunetan oinarritzen diren sistema.

Zergatik eusten zaio orduan maskulinotasun eredu tradizionalari? Eredua mantentzen duen egitura soziala ez delako gehiegi aldatu. Arau eta egitura zaharrak ustez bakarrik aldatu dira. Emakumeek urrats bat egin dute aurrera berdintasunerako bidean, baina gizon gehienek ez dute egin urrats hori, oraindik.

4.1. GIZONAK ETA BOTEREA

Gizonek boterearen esperientzia gizarteratze prozesutik barneratzen dute. Boterea zer den, eta familian nork eta nola erabiltzen duen da haien lehenengo erreferentea. Kontuan izan behar dugu 5 urte bete baino lehen generoaren ikuspegi eta egiturak gure nortasunetan oso finkatuta daudela; hortaz, gizonen boterearen barneratze eta ikaspen esperientzia sakona eta oso goiztiarra da.

Boterea gaitasun bezala defini daiteke, pentsatu, jokatu eta gaitasunak garatzeko pertsonek duten potentzial bezala, edo baita gainerako pertsonengan boterea erabiltzeko gaitasun eta aukera bezala.

Gizonentzat boterea izan eta kontrolatzeko garrantzia bigarren definizioarekin bat dator. Besteen *gaineko* boterea, besteen gaien gainean, gai komunetan eta norberaren gaietan definizio eta interesak inposatzeko gaitasun gisa ulertua. Ikuspegi menderatzaile horren bitartez eraiki dira maskulinotasun hegemonikoak eta definitu eta zabaldu du boterea talde horrek historian, atzeraelikatzeko prozesu historiko, psikologiko eta sozial batean. Horrela, boterea eta maskulinotasuna elkarelikatze prozesu historiko batean lotzen joan dira, maskulinotasuna eta boterearen banaketa eta formak historian zehar definituz joan direlarik; hortaz, gizonek erabilitako botere modua hegemoniko bihurtu da, aldi berean, belaunaldiz belaunaldi gizonak boterean mantenduz.

Baina gizonek boterean dituzten esperientziek kontraesan asko dauzkate. Michael Kaufmanek azaltzen duen bezala: *«gizonen botere soziala haien botere eta pribilegio indibidualen iturria da, baina baita haien minaren eta alienazioaren esperientzia indibidualarena ere... min hori ezagutzea gizonak hobeto ulertzeko eta maskulinotasunaren menderakuntza forma konplexuen izaera hobeto ezagutzeko modu bat da».* Horrenbestez, mina, isolamendua eta afektu eza boterea ulertzeko modu horren ordaina direla ikusiko genuke.

4.2. GIZONAK ETA EMOZIOAK

Gizonek aurre egin behar dioten arazo nagusietako batek «0» joerako heziketa emozionalarekin du zerikusia, hau da, sentimenduak ezkutatzera, ukatzera edo erlatibizatzera bideraturiko heziketarekin.

Esan dezakegu hori dela «nahitaezko zerbitzu maskulinoaren» (edo gizonengandik une bakoitzean itxaroten dena) txanponaren beste aldea, maskulinoa dena egituratzen duen elementuetako bat indarra izatea, alegia. «Mutikoek ez dute negarrik egiten», «gogorra izan behar zara» edo «hori neskek bakarrik egiten dute» bezalako esapideak erabiltzeak maskulinotasunaren eredu estereotipoa islatzen jarraitzen dute, eta horiek betetzea eta menderatzea «gizon egitearen» ideiarekin lotzen jarraitzen dugu.

Horrela, afektu eta emozioen mundua maskulinotasun hegemonikoa definitzen duten oinarrizko elementuetatik at geratzen da. Gizon bat sentibera denean, enpatikoa, zaurgarria, kontsolatzen badaki eta kontsolamendua bilatzen duenean eta ez denean lehiakorra, eredu horretatik aldendu egiten da zuzenean.

Bestalde, gizon gehienek kanporantz proiektatzeko eta barrukoarekin zerikusia daukana ahaztu edo iraintzeko daukaten joerek txikitatik espazioa menperatzeko eta tresnak erabiltzeko gaitasunaren arloan trebatzera garamatza, baina ez zaigu inongo gaitasun emozionalik garatzeko hezkuntzarik eskaintzen. Horregatik sortzen da frustrazioarekiko tolerantzia maila baxua, ohikoak diren tristura eta beldurra bezalako sentimenduak landu eta kudeatzeko mekanismo eraginkorrik ez dutelako, batez ere zaurkortasunarekin zerikusia dutenak, ahuleziarekin nahasten baitira.

Horrek mendekoagoak diren gizonak sortzen ditu, afektiboki eta emozionalki beste pertsonen mende daudenak, batez ere emakumeen mende, maskulinotasun hegemonikoaren indarraren eta segurtasunaren ideiarekin kontrajartzen dela iruditu arren.

Horren guztiaren ondorio gisa bakarrik dauden eta afektuzko gabeziak eta harremanetarako zailtasunak dituzten gero eta gizon gehiago dago. «Bakardade maskulinoak» deitu zaio horri.

4.3. MASKULINOTASUNA ETA ARRISKUAREN KULTURA

Nortasun maskulinoaren alderdietako bat etengabe norberaren gaitasunak beste gizon batzuen aurrean erakustea da. Eredu heroiko horrek besteen onarpena bilatzera garamatza norberaren segurtasuna alde batera utziz. Maskulinotasun hori berresteak adinaren arabera erabat aldatzen diren etengabeko erakustaldiak eskatzen ditu gainera. Gizon askok segurtasuna erlatibizatzen duten jarrerak hartzen dituzte, eta jarrera arriskutsuetan eta ausardia erakusteko jokaeretan oinarritzen dira, beren gizontasuna eta gizon bezala duten balioa berresteko.

Arrisku jarrera horien oinarria gorputza aldaezintzat jotzen duen ideia da eta oso orokortua dago gizonen artean. Ideia hori da gizon asko jarrera ausartegia izatera eta lesio eta mi-

naren dimentsioak gutxiestera eramaten dituena, drogen kontsumoan, gidatzerakoan edo sexu harremanetan ikus daitekeen bezala.

Mendebaldeko gizarte modernoetan garatutako arriskuzko jarrerak, eta bereziki ibilgailuak gidatzerakoan, gizon askok daukaten jarrera ausartegiaren adibide argiak dira.

Arrisku jarrera publikoak ez datoz norbera hondatzeko saiakeretatik. Maskulinotasun hegemonikoekin identifikatutako jarraibideak dira eta horien arabera, gizonek beraien kondizioa negoziatu behar dute erakustaldi publikoekin. Jarrera horiek, hortaz, gizonek beren irudiari eutsi eta hura salbatzeko arlo publikoan erabiltzen dituzten moduak dira –eta arlo publikoa esaterakoan ez zaio beste pertsona batzuk parte hartzen duteneko egoerei erreferentzia egiten soilik, baita besteekiko erreferentziaren arabera jokatzen denekoak ere–. Gizonek, beraien gorputzak erabiltzeaz gain arriskuarekin jolasten dute, hori «egin behar dutelako» gizon bezala ikus ditzaten. Arrisku jarreren emaitza gisa batzuetan sortzen diren kalteak gizontasuna frogatu eta berresteko saiakeren emaitza negatiboak dira[1].

Maskulinotasun eredu hegemoniko edo tradizional guztiek ez dituzte beren aginduak norbera suntsitzeko mutur horretara eramaten. Baina eredu hegemonikoaren mendekotasunaren muturrean, emetasunaren kasuan (anorexia) zein gizontasunarenean, bizitza eredu horien mende jartzeko arrisku handia dago, eta azkenean gerta daiteke elementu subjektibo hori pertsonaren identitatearen ezaugarri nagusi bilakatzea. Maskulinotasun hegemonikoaren ereduaren barruan, honako hauek izan daitezke muturreko jardueren adibideak: laneko istripuak, auto edo motorreko istripuak, kirol ekintza arriskutsuak, sexu transmisiozko gaixotasunak, preserbatiborik ez erabiltzeagatik hiesa hartzea, borrokak edo armadan eta gatazka armatuetan parte hartzea, edo indarkeria erabiltzen duten taldeetan edo talde paramilitarretan.

[1] Iturria: Espada Calpe, Chema, Hombres, motos y riesgo. (www.heterodoxia.wordpress.com/).



5. GIZONEN GENERO ARAZOAK

Maskulinotasun eredu hegemonikoak gizonei pentsatu, izan, egon eta munduan jokatzeko modu estereotipatua eta zorrotza inposatzen die. Gizonen pribilegio eta botereak oinarritzen direneko maskulinotasun eredu sexista horrek emakumeentzat ondorio larriak dakartza. Baina gizonentzat ere negatiboa da, «gizonen genero arazoak» izenarekin ezagutzen dena eragiten baitu.

Gizonei modu esanguratsuan eragiten dien maskulinotasunarekin bereziki lotzen diren arazo horiek sexu genero sistema beraren eta gizarteratze sexistaren ondorio dira. Hori delaeta, gizonek (ez gizon guztiek neurri berean), maskulinotasun hegemonikoaren ereduaren bitartez, genero arazo larri horiek sortzeaz gain, jasan ere egiten dituzte eta haien protagonista bilakatzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan gizonak batez beste emakumeak baino 7 urte gutxiago bizitzea, edo[1] Estatu espainiarrean 2.000.000 emakumezko alargun izatea, 200.000 gizonezko alargunen aurrean maskulinotasun hegemonikoak eragiten duenaren inguruko datu esanguratsuak dira, eta gizonen genero arazoak ikusten laguntzen dute. Demografia ezberdintasun esanguratsu horien azalpenak arrazoi asko ditu eta konplexuak dira, baina harreman estua daukate gizonak beren burua zaintzeko kultura ez izatearekin. Bestalde, arriskuaren balorazio positiboaren emaitza dira, eta indarkeria gizontasunaren eta maskulinotasunaren baieztapen gisa legitimatzearen ondorio zuzena .

Kontutan izan behar da norbera zaintzeak eta osasunak genero osagai gogorra ere badutela: heziketa maskulinoaren pisuak zaintzaren ideia, norbera zaintzearena zein beste pertsona batzuk zaintzearena, emakumeena dela indartzen du, indarra, ausardia eta adorearen aurrean, gizonenak direla.

Substantzia ilegalekiko mendetasuna dutenen artean gizonak gehiengoa dira. Izan ere, gure erkidegoan drogen kontsumoarekin arazoak dituzten pertsonetatik %72 gizonak dira[2]. Estatuan, drogen kontsumoagatik hildako pertsonen %80 baino gehiago gizonezkoak dira[3].

---

[1] Iturria: Emakunde. *Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en Euskadi 2006.*
[2] Iturria: *Euskadi y Drogas 2006.* Droga Gaietako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
[3] Iturria: Drogei buruzko Espainiako Behatokia.

Era berean, gizonak dira delitu gehien egiten dituztenak, eta horrek azaltzen du espetxeetan gehiengoa izatea (2006an EAEko espetxeetan zeuden pertsonen %93)[4]. 2005. urtean, hilketagatik kondenatutako pertsonetatik 423 gizonezkoak ziren, eta 21 emakumeak[5].

Bestalde, 2007an gure Erkidegoan trafiko istripuan hildako 80 pertsonetatik 63 gizonak ziren, baita trafiko istripuetan inplikaturiko gidarien %80 ere[6]. Estatuan, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera, 2005ean 3.652 pertsona hil ziren errepidean (%79 gizonak). Horietatik, 2.357 ibilgailuen gidariak ziren (hil ziren gidarien %91 gizonak ziren). Urte berean 186 emakume gidari hil ziren eta gizonen kasuan 1.284 (7 aldiz gehiago) Ziklomotorrei dagokienez, ibilgailu horiek gidatzen zituzten 10 emakume hil ziren, eta 142 gizon (14 aldiz gehiago). Ibilgailu profesionalen gidariei buruz hitz egiterakoan (anbulantziak, kamioiak, furgonetak, autobusak) proportzioa 9 eta 202koa da (22 aldiz gehiago gizonen kasuan). Motorren kasuan 4 emakume hil dira, eta 326 gizon (81 aldiz gehiago)[7].

Beren buruaz beste egiten duten pertsonen tasari dagokionez ere gizonak askoz gehiago dira, batez beste urteko 12,6koa eta emakumeen kasuan 3, 9koa[8]. Eustaten datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan ere bere buruaz beste egiten duten pertsonetatik %70 gizonak dira.

Gizonen eskola-porrota emakumeena baino altuagoa da, eta bereziki nabarmentzen da nerabezaroan. Euskal Autonomia Erkidegoan, eskola-porrotak generoarekin zerikusi handia du, neskak kasu guztien %10,8 dira eta mutilak eskola-porrota jasaten dutenen %20,3[9].

Baina ez dira gizonak biktimizatu behar, baizik eta maskulinotasun tradizional edo sexistak sortzen dituen arazo eta eragin zehatzak erakutsi behar dira, baita gizonengan ere. Maskulinotasun hegemonikoak gizonengan eragiten dituen arazoak erakutsi eta izendatzea estrategia baliagarria izan daiteke gizonak berdintasunerantz aldatzea baloratzeko. Aldaketarekin pribilegioak galdu baina bizi kalitatean irabazten dutela ikusarazi behar zaie.

---

[4] Iturria: Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza, Barne Ministerioa.
[5] Iturria: Botere Judizialeko Kontseilu Nagusia.
[6] Iturria:Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Trafiko Zuzendaritzaren 2007ko Trafiko Istripuen Estatistika Urtekaria.
[7] Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko 2005. urteko ezbeharren urteroko txostena.
[8] Iturria: Osasunaren genero desberdintasunen behatokia.
[9] Iturria: Hezkuntza Adierazleen Sistema. Hezkuntza Ministerioa. 2004.

Gainera, gizonak familietan oinarri ekonomikoaren hornitzaile nagusiaren papera betetzeko gizarteratu direnez, lanaldiak luzatzeko presio handiagoa daukate enplegu arloan, beren bizitza produkzio munduan kontsumitzea eragiten duena. Horregatik, ezin dituzte beraien gaitasun eta potentzial guztiak garatu, batez ere familia afektuekin lotura daukatenak. Hautemangarriak dira, halaber, nagusi den eginkizun sozialetik urruntzen diren eta tradizionalki «femeninotzat» hartu izan diren portaerak eta zereginak publikoki hartzera ausartzen diren gizonek jasandako onarpenik eza eta, zenbaitetan, gutxiespen soziala.

6. INDARKERIA MASKULINOAK ETA INDARKERIA MATXISTA

Indarkeria gizarte fenomeno gisa gure gizartearen maskulinotasun nortasuna eraikitzearekin lotuta dago. Gizarteratze maskulinoaren prozesuaren zati da, emakumeena baino neurri askoz handiagoan. Eta gure gizartean indarkeria fisikoak gero eta zilegitasun gutxiago duen arren, oraindik gizon askok erabiltzen jarraitzen dute.

Gizon batzuek indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dute, baina baita beste gizon batzuekin arazoak konpontzeko bide bezala ere, beste itxura bat hartzen duen arren. Batzuetan norberaren aurka ere erabiltzen da. Horregatik, gizon batzuek indarkeria erabiltzen dute arazoak konpontzeko tresna eraginkor eta zilegitzat ulertzen dutelako, baina indarkeria hori pairatu ere egiten dute. Hala ere, argi dago gizonen arteko indarkeriak ez dituela emakumeen aurkako indarkeria definitzen duten baldintza soziokulturalak.

6.1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria ez da arazo pribatu bat, baizik eta arazo politiko eta sozial bat, eta, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren hitzaurreak ezartzen duenaren arabera, indarkeria gure gizartean dagoen ezberdintasunaren irudi krudelena da. Emakumeei, emakume izateagatik bakarrik, zuzenduriko indarkeria da, erasotzaileek uste baitute haiek ez dituztela aske izateko, errespeturako eta erabakiak hartzeko gutxieneko eskubideak. Legearen testuan bertan tratu txarrak jaso dituen emakumearen sindromearen definizio teknikoaz hitz egiten da eta horren arabera, "genero maskulino eta femeninoan eragina duten baldintza soziokulturalen ondorioz emakumeek jasandako lesioak dira, hura gizonaren mende jartzen dute eta pertsonaren harremanaren oinarrizko hiru alorretan azaltzen dira: bikote harremanetan gertatzen diren tratu txarrak, eraso sexuala bizitza sozialean eta jazarpena lan arloan.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 2007an beraien bikote edo bikote ohiek bi emakume hil zituzten. Estatuan, eta Barne Ministerioaren arabera, 2001 eta 2007 bitartean 443 emakume hil zituzten beren bikoteek edo bikote ohiek. Erailketak askoz ere sakonagoa den eta askoz ere hedatuago dagoen fenomeno baten zati dira, ikusten den zatia alegia, baina horiez gain, beste hainbat indarkeria modu ere biltzen ditu.

Zentzu horretan, 2007. urtean EAEn 3.223 salaketa aurkeztu ziren Ertzaintzaren komisarietan, bikoteak emakumeari eragindako indarkeriazko ekintzengatik, eta 274 salaketa sexu askatasunaren aurkako delituengatik[1].

[1] Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila, 2008ko otsaila.

6.2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO MITO BATZUK

Indarkeria matxistari buruz frogatu gabeko eta oso hedatuak dauden hainbat mito eta ideia desitxuratu daude. Gizon mota jakin batek baino ez duela bere bikoteaz abusatzen pentsatu ohi da, baina aldiz, errealitateak erakusten du ez dagoela tratu txarrak eragiten dituen gizon tipiko bat, eta adinak, gorpuzkerak, egoera sozialak, erlijioak edo nortasunak ez direla faktore erabakitzaileak ere argi ageri da. Bai aipa ditzakegu, ordea, txosten gehienek tratu txarrak eragiten dituzten gizonen ezaugarri nagusi edo ohikoenei buruz emandako datuak.

Tratu txarrak eragiten dituzten gizonak gaixo mentalak direla ere esan ohi da, baina hori gutxiengoari baino ezingo zaio aplikatu[2], ezin baita frogatu gaixotasun mentalaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean kausa-ondorio loturarik dagoenik. Tratu txarrak ematen dituzten gizon batzuk alkohola eta beste droga batzuk kontsumitzen dituzten arren[3], horiek arrisku faktore gisa baino ez dute funtzionatzen, eta ez indarkeriaren justifikazio edo azalpen gisa. Izan ere, gizon askok beren bikoteak erasotzen dituzte alkoholik edan ez dutenean. Indarkeria erabiltzen duten gizonen izaera «oldarkorra» eta kontrolik gabearen ideia ere beste mito bat da, izan ere, beraien bikoteez abusatzen duten gizon gehienak ez baitira bortitzak beraien bizitzaren beste arlo askotan. Are gehiago, tratu txarrak ematen dituzten gizonen portzentaje handi bat familia alorrean baino ez da bortitza[4], eta gatazkak konpontzerako orduan indarkeria zilegi dela pentsatzeko joera izaten dute.

Emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren kultura tratu txarrak ematen dituzten gizonek beste pertsonarengan ezartzen duten kontrolarekin zuzenean lotuta dago.

Beste faktore erabakigarri batzuk gizon batzuen ezaugarri psikosozialak dira, egoera gatazkatsuei modu egokian aurre egiteko zailtasunak, esaterako, batez ere arlo pertsonalean, edo beren sentimenduei eta arazo afektiboei buruz hitz egiteko gaitasun gutxi edo gaitasunik eza. Autoritarismoak ere askotan segurtasun pertsonal eza ezkutatzen du, eta horrek dakarren dependentzia emozionala, baita bikotea kontrolatu, zelatatu eta jeloskor sentitzearen jarrerak garatzea ere.

---

[2] 2006ko Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundien eta Gasteizko Udalaren mendeko tratu txarrak ematen dituzten gizonen tratamendu psikologikoko programen memorien arabera, artatutako gizonen %25ek baino ez du aurretiazko historial psikiatrikoa.

[3] Lehenago aipatutako memoriaren datuen arabera, tratu txarrak ematen dituzten gizonen %38k alkohol gehiegi edaten du.

[4] Aurreko bi puntuetan aipatutako memoriaren datuen arabera, tratu txarrak ematen dituzten gizonen %78k ez du jarrera bortitzik familia harremanetatik kanpo.

Tratu txarrak ez ditu maskulinotasun tradizionalaren eredu zehatza ulertzeak bakarrik eusten, baizik eta eredu hori lortu ezinak sortzen duen frustrazio eta porrot sentimenduak ere. Hori gertatzen da inposatzen dituen itxaropen sozial eta pertsonalak (arrakasta, balioa, segurtasuna, sendotasuna) lortzen oso zailak direlako[5].

Rubén Mejía-k azaltzen duenez[6], «maskulinotasun tipikoa lortu ezin den eredu bat da, frustrazio, isolamendu eta ezjakintasun iturri bat, gizonak harrokeriatan ibiltzera eramaten ditu, adibidez jarrera arriskutsuekin edo konplizitatearekin Hori gertatzen da oraindik badirelako eutsi edo kontrolatu ezin diren sentimenduak, eta batzuetan identifikatu ere ezin direnak».

6.3. MIKROMATXISMOAK

Luis Bonino-k sortu eta garatutako terminoa da, eguneroko bizitzan eta bikote harremanetan ematen den indarkeria eta menderakuntza maskulinoaren jarrera eta joerei erreferentzia egiten diona. Mikromatxismoak normalean jarduera ez kontzienteak dira, eta ia beti hautemanezinak, baina metatu egiten dira eta emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukera banaketa ez justua iraunarazi ohi dute.

Mikromatxismo horiek ulertzeko kontuan izan behar da emakumeen eta gizonen arteko harremanak ezartzen direneko eskenatokian bestelakotasunez gain, desberdintasunak eta botere harreman asimetrikoak daudela eta haiek menperatze estrategiei erantzuten dietela. Jarduera horiek eguneroko bizitzan jarrera maskulinoa agertzen den arlo zabal bat beteko dute. Mikromatxismoak gizonak bere genero menderatzaile izaerari eusteko egindako mikroabusuak izango lirateke, emakumea egunero harrapatzen duen eta bere autonomia pertsonala mugatzen duen sarea sortuz.

Mikromatxismoetako batzuk eguneroko ekintzetan azaltzen dira, denbora libreaz gozatzeko aukera izatea, esaterako, bikoteak hartzen baititu bere gain banaketa berdintsua balitz guri egokituko litzaizkigukeen etxeko lanak. Askoz gehiago daude: etxeko lanaren eta seme alabak zaintzea dakarren lanaren balio ekonomikoa ez aitortzea; gizonek beren arrazoiak azaltzeak nahi dutena egiteko eskubidea ematen dienaren ustea; sentimenduak adierazteko zail-

---

[5] Fernández-Llebrez, Fernando: *Masculinidades y violencia de género ¿Por qué algunos hombres maltratan a sus parejas (mujeres)?* Granada, 2005eko apirila.

[6] AHIGE-ren *Intervención con hombres desde la perspectiva de género on line ikastaroaren "Hacerse hombre"* izeneko kapitulutik hartutako erreferentzia (2007).

tasuna arrazoitzat erabiltzea hitz egitea, azalpenak ematea eta konpromisoak hartzea saihesteko; etxeko lan batzuen erantzukizuna onartzea, haien kudeaketaren ardura hartu gabe, zer erosi behar den edo izozkailutik zer atera behar den kontuan izan gabe; bikotearen soldata edo laneko maila igoera nahi ez izatea; denborak kontrolatzea; etxeko lanak nola egiten diren kritikatzea, eta abar.

6.4. MAITASUN ERROMANTIKOAREN IDEALA ETA BIKOTE HARREMANAK

Familia bezalako erakunde bat, gure gizartean oinarrizkoa dena, maitasun erromantikoaren ideian bermatzen da neurri handi baten. Maitasunaren kontzeptua mendebaldeak sortu duen eraikuntza soziala da, eta ezartzen duen maitasun ereduak huts egiten duenean (eta askotan egiten du huts) frustrazioa eta desengainua ekartzen ditu. Egoera hori, bikote harremanetan eta emakumeen aurkako indarkerian ondorio garrantzitsuak dituzten faktoreen artean ere ageri ohi da.

Mendebaldeak aurkezten digun eleberrietako maitasuna zailtasun askoren gainetik gailentzen da, ezinezko maitasunak, maitasun ezbeharrekiko zaletasuna, maitatzen den pertsona idealizatzea... Horrek guztiak ez du beste pertsona errespetatzea eta ezagutzea edo berdinen arteko errespetua bultzatzen, aldiz maitasuna sufrimendua dakarren pasio gisa erakusten du.

Zinemak edo literaturak erakusten dute oztopo larriak direla maitasunaren pasioa handiagotzen dutenak. Hori guztia, jeloskortasunari eta harremanaren irudi tragikoari lotuta, «zu gabe ezin naiz bizi» edo «zu gabe ez naiz ezer» bezalako esaldi ezagunetan laburbiltzen da.

Maitasunaren mito hori gure gizartean bikoteen harremanen ideal gisa ikusten dela begibistakoa da, eta eguneroko bizitzan ondorio argiak ditu. Maitasuna-pasioa idealak harreman mota bat sortu eta bultzatzen du, maitasun jokaera jakin bat. Eredu horren arabera beste pertsonagatik sakrifikatzea gailentzen da eta norberaren bizitza eta garapen pertsonala ahaztu egiten dira.

Maitasunaren ideia hori batez ere emakumeen heziketan indartzen da eta garrantzi txikiagoa du gizonen gizarteratze prozesuan.



7. GIZONAK BERDINTASUNAREN AURREAN

Gaur egun maskulinotasun tradizionalaren oinarrizko elementu askok indarrean jarraitzen badute ere, gure gizartearen ezaugarri esanguratsuenetako bat dinamismoa eta aldaketa soziala dira. Dinamika horiek emakumeek bultzatzen dituzten aldaketek eragiten dituzte batez ere, eta gizonak ez kanpo geratzen.

7.1. ALOR SINBOLIKOKO ALDAKETEN INGURUKO DATU BATZUK

Azken urteetan gure gizartean gertatu den aldaketa garrantzitsuenetako bat gizarte diskurtso hegemonikoan emakume eta gizonen arteko eskubide, aukera eta erantzukizun berdintasuna ezartzea eta finkatzea izan da.

Hortaz, euskal gizonen gehiengoa sexu berdintasunaren alde dago plano teorikoan. Ildo horretatik, 2004an Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako *EAEko biztanleriaren iritziak Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan* txostenak erakusten duenez, gizonen %77k (emakumeen %86arekin alderatuta) garrantzi asko edo nahikoa ematen dio emakume eta gizonen arteko berdintasunari, gizonen %79k (emakumeen %88k) berdintasun horren alde neurri gehiago hartu behar direla uste du.

Gizon gehienen ustez, jarrera horiek hartzea eraginkorra da sexuen arteko berdintasun eza murrizteko edo desagerrarazteko: etxeko lanak banatzea, seme alabentzat eredu izateko (%94); emakumeak berdintzat hartzea, haien nahiei, iritziei, lanari eta abarri balioa emanez (%93); haien kideek eta lagunek emakumeekiko jarrera ez errespetagarriak badituzte, kritikoak izatea (%92); berdintasunak, haientzat ere abantailak dituela onartzea (%88), eta emakumeen eskubideen defentsan aktiboa izatea (%89).

Horregatik guztiagatik, esan dezakegu plano teoriko eta sinbolikoan berdintasunezko posizioetarantz dagoeneko gure gizartean aldaketa handia gertatu dela, batez ere gizonen kasuan. Baina paradoxa handia zera da, praktikan gizonen inplikazioa ez dela teorian bezalakoa, eta gizonek etxeko eta zaintzako lanetan duten inplikazioa ez dela berdintasunezkoa, jarraian ikusiko dugun moduan.

7.2. BENETAKO ALDAKETEI BURUZKO DATU BATZUK

Etxeko lanen eta zaintzaren banatzearen, baimenak eta eszedentziak erabiltzearen eta lanaldia laburtzearen inguruko estatistikek sexuaren araberako ezberdintasun handiak daudela argi erakusten dute.

Emakume eta gizonen artean dagoen ezberdintasuna oso argi erakusten duen adierazleetako bat da bakoitzak etxeko lanei eta zaintzari eskaintzen dion denbora. Euskadin gizonek egunero batez beste ordu 1 eta 32 minutu erabiltzen dituzte, eta emakumeak aldiz 3 ordu eta 50 minutu[1]. Datu horiek arlo pribatuan gizon eta emakumeen arteko harremanetan jarraibide orokorra den asimetria islatzen dute; horrez gain, gizon gehienek familia eta zaintza lanei eskainitako denborarekin ez dituztela norberaren beharrizanak betetzen ere esan nahi du; hortaz, emakumeak beren kideei dagokien lanaren zati bat egitera beharturik daude. Baina hori nazioarteko joera da, Europar Batasuneko gizonek astero 7 ordu baino ez baitizkiete eskaintzen etxeko lanei, duten lanaldia dutela. Emakumeek 35 ordu eskaintzen dizkiete astean lanaldi partziala badute, eta 24 lanaldi osoa dutenean[2].

Etxeko lanen banaketa irregularra adineko pertsonak zaintzeari eskainitako denboran ere atzeman daiteke; gizonek 0,58 ordu erabiltzen dute horretarako, eta emakumeek, aldiz, 1,57. Horrez gain, umeak zaintzen gizonek 2 ordu ematen dituzte, eta emakumeek 4,1 ordu. Azken datu hori esanguratsua da, zaintza lanetan gizonen inplikazioan gertatu den aldaketa handiena seme-alaben zaintzaren kasuan eman baita, baina horrek ez du zaintzarekin lotutako beste lan batzuetan joera aldatzea ekarri.

Beste datu esanguratsu batek aitatasun baimenekin zerikusia dauka. Horrelako baimenak erabili edo lanaldia murrizten duten gizonak gero eta gehiago badira ere, 2006. urtean Eusko Jaurlaritzak emandako lanaldiak laburtzeko eta zaintzarako eszedentzietarako laguntzak baliatu zituzten lagunetatik gizonezkoak %6,1 bakarrik izan ziren[3]. Horrez gain, gizonen %3,5ek bakarrik partekatu zuen bere bikotearekin amatasun/aitatasun baimena 2006an[4].

---

[1] Iturria: *Denboraren Erabileraren Inkesta*. Eustat. 2003.
[2] Iturria: Escuela Virtual de Igualdad. Instituto de la Mujer.
[3] Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
[4] Iturria: *Lan Estatistiken eta Gizarte Gaien Urtekaria.* Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. 2007.

7.3. ZER GERTATZEN DA ORDUAN BERDINTASUNAREKIN?

Gizonen %94k etxeko lanak banatzea positibotzat jotzen badu, eta %93k emakumeak bere berdintzat hartzen baditu, zergatik egiten dute etxeko lanen herena bakarrik? Edo zergatik 2006. urtean gizonen %3,8k bakarrik partekatu zuen aitatasun baimena bere bikotearekin? Begi bistakoa da emakumeak arlo publikoan sartzeak ez duela eragin gizonak neurri berean etxeko lanen eremuan sartzea. Gizonek zaintza lanetan duten inplikaziorik ezak berekin dakar emakumeek zeregin horren ardura beren gain hartzen jarraitu behar izatea. Eta horrek, aldi berean, emakumeen lanaldia bikoiztu eta, batzuetan, hirukoiztu egiten du. Zenbait sektoretan «emakumeen nahitaezko ahalegin existentziala» deitu izan diote.

Gainera, etxeko lanen banaketa ez denean berdintasunezkoa, emakumeek lanaldi partzialak bilatu behar izaten dituzte; bien seme-alabak zaintzeko familian laguntza bilatu behar dute (ama edo amona); norberaren denbora librea baztertu behar izaten dute, edo lan merkatuan egoteari utzi.

Zenbait txostenek ere beste datu esanguratsu bat azaleratzen dute, alegia gizona/bikotea etxean egoteak emakumearen lana 8 orduz luzatzen duela, beste seme batek eragingo lukeen lan bera edo handiagoa sortuta. Horrek esan nahi du gizonek egiten duten lanak ez duela haiek sortzen duten aparteko lan hori betetzen. Izan ere, guraso bakarreko familien buru diren emakumeek bikotea duten emakumeek baino denboraren zati txikiagoa eskaintzen diete etxeko lanei.

Etxeko arduren eta lanen banaketa berdintzaileago batek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko luke, gizartean, politikan eta lan arloan neurri bertsuan parte hartzeko aukerak emango bailituzke.

Gaur egun gizonen %5ek argi eta garbi berdintasunez jokatzen duela esan dezakegu, gizonen heren bat emakumeen aldaketaren aurrean atzerakoia edo oldarkorra da ordea[5]. Gakoa, hortaz, «iparra galduta»[6] daukaten gizonen gehiengo handi horretan dago, berdintasuna balore eta printzipio bezala onartu baina modu egonkor eta kontzientean praktikatzen ez duten gizonen gehiengo horretan. Horregatik, berdintasunaren erronka da gaur egun gehiengo isil horren zati diren gizon kopuru gero eta handiagoa berdintasunezko posizioetarantz hurbiltzea.

---

[5] Bonino, Luis. *Los varones frente al cambio de las mujeres,* «Los hombres ante el nuevo orden social» Kongresuko hitzaldia. Emakunde. 2001.

[6] Lucas,Manuel. EPS, 2005eko martxoaren 13a.

8. ALDAKETA GIZONENGAN

Gizonen aldaketa prozesuak indibidualak eta kolektiboak izan dira. Berdintasunaren inguruan antolatu diren gizonak garapen pertsonalaren ideiari heldu diote duela 20 urtetik. Azken urteetan soilik sortu dira izaera publikoagoa edo sozialagoa duten ekarpenak.

8.1. LAN PERTSONALERAKO EDO GIZONEN ASKAPENERAKO TALDEAK

Talde horien lanaren ardatza da gizarteak gizonezkoei ezarritako rolak (gizarteratzea) dituen eragin murrizgarri eta kaltegarriak aztertzea eta haien dekonstrukzioa egitea. Maskulinotasun menderatzailearen estereotipoak gizonen ongizate pertsonalerako kaltegarriak direla hartzen dute aintzat eta rol maskulinoak ezintasun emozionala sortzen duela; kasu askotan mina eta isolamendua ere eraginez; gizonak gehiegizko esplotazioa jasatera eta jarrera arriskutsuak eta bortitzak izatera eramaten ditu, gainera.

Talde horren antolakuntza eta ekintza motak gizon taldea du tresna nagusitzat; elkartzeko, talde konfiantza eta intimitatea izateko gune bihurtzen dira, gizarteratze prozesuan zehar ikasi eta barneratutako maskulinotasun eredu sexista atzeman, hartaz jabetu eta ondoren desegiteko. Talde horiek batez ere arlo pertsonal eta psikologikoan kontzentratzen diren arren, ekintza publikoak ere egin ohi dituzte, sentsibilizatzeko, emakumeen aurkako indarkeria salatzeko, osasuna eta maskulinotasunaren inguruko ekintzak, eta abar.

8.2. BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZONAK

Komenigarria da argitzea gizonen askapenerako mugimenduak eta berdintasunaren aldeko gizonen mugimenduak puntu ugari dituztela komunean. Askotan gune, hausnarketa eta jarduera berak biltzen dituzte. Berdintasunaren aldeko gizonen mugimenduko taldeek maiz bultzatzen dituzte hausnarketa eta garapen pertsonalerako taldeak, eta askapen mugimendutik ere berdintasunaren aldeko gizonen taldeak sortzen dituzten ekimen eta dinamikak ere eraikitzen dituzte. Sarritan bi mugimenduak gainjarri egiten badira ere, gizonen askapenerako mugimenduak gizarteratze sexistak gizonengan dituen ondorio kaltegarri pertsonalak aztertzen ditu batez ere, eta sexismoaren aurkako mugimendua gehiago zuzentzen zaio alor sozialari eta politikoari. Botere eta indarkeria matxista salatzea du helburu nagusi; genero bidegabekeriak eta gizonak berdintasuna gehiago errespetatzen duten posizioetara aldatzeak dituen abantailak ere aztertzen dituzte.

Berdintasunaren aldeko gizonen mugimenduak beharrezkoa den hausnarketa eta praktika mugimendu prozesu bat hasi nahi du, gizonak berdintasuna gehiago errespetatzen duten posizioetarantz alda daitezen lortzeko. Emakumeen jabekuntza bultzatzeko estrategia osagarri eta paralelo gisa, gizonen «armagabetze morala»[1] proposatzen da, hau da, gizonen nortasun propioaren azterketa kritikoa. Mugimendu horren ezaugarri garrantzitsuenetako bat da patriarkatua bidegabekeriaz eta ezberdintasunez beteriko gizartearen jatorrian jartzen duela, gizonei gizon izate hutsagatik abantaila ematen baitie, eta horregatik, pribilegioak galtzeko prest egotea aldarrikatzen dute berdintasunean irabazteko, gizonek aldaketarekin irabazi egingo dutenaren uste osoarekin.

Hortaz, honako hauek dira berdintasunaren aldeko gizonen mugimenduko taldeek komunean dituzten ardatzetako batzuk:

- Aldaketa pertsonalarekiko gizonen konpromisoa (afektuak adierazteko, frustrazioa bideratzeko, sexualitatea bizitzeko, homofobiaren aurkako konpromisoa...).
- Emakumeen aurkako indarkeriaren eta generoagatiko bazterkeriaren kontrako borroka aktiboa.
- Pertsonak zaintzeko orduan gure erantzukizuna berdintasunez onartzea.
- Maskulinotasun positiboaren ereduak babestea, bultzatzea eta ikustea (zaintzen duten gizonak, baketsuak, sentiberak...).
- Alor publikoan gauzatu beharreko aldaketarekiko gizonen konpromisoa (berdintasunaren aldeko gizonen multzo kritikoa sortzea, adiskidetzeko estrategiak babestea, botereguneei uko egitea emakumeek har ditzaten, lege aldaketak proposatzea...).

[1] Sáez, Hilario. *Políticas de género para hombres,* 3. orria.

9. GIZONEN ALDAKETARAKO IDEIA BATZUK

Emakumeak eta gizonak berdinak izango diren gizartea eraikitzeko prozesuan beharrezkoa da gizonen jarrerak aldatzea eta haiek berdintasunezkoago egitea, bai arlo pribatuan bai publikoan. Teoriaz haratago, garrantzitsua da onartzea eredu maskulinoak gure aro eta kulturaren adierazpena direla, baina desberdintasuna ekartzen duten heinean haiek zalantzan jarri eta berrikusi egin behar direla.

Gizon guztiek ez dituzte genero estereotipoak edo jarrera sexistak berdin errepikatzen, baina gizon guztiak gizarteratu dituen eredu maskulino hegemonikoa eta hori errepikatzeko mekanismoak zalantzan jartzea, berrikustea eta deseraikitzea abiapuntu on bat izan daiteke sexismoak emakume eta gizonei eragiten dizkien kalteak zuzentzeko.

Maskulinotasunaren berrikuspen horretan, emozio eta afektuen arloan gizonek betidanik izan duten isolamendua gainditzen saiatu eta afektua gehiago baloratzen duten gizakiak eraikiko bagenitu, pertsonak askeagoak eta autonomoagoak izango lirateke azkenean.

Arrisku jarreretatik aldentzea pertsonen zaintzaren alde egiten duten jarrerak bultzatuz eta arriskua erakusten beste gizon batzuen onarpena ez bilatzeak berehalako ondorioak ditu ez bakarrik gizonen osasunean, baita emakumeenean ere.

Gizonek emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako gizarte borrokan parte hartzea ere ezaugarri positibo bat izan daiteke. Gizonek aktiboak izan behar dute eta indarkeria hori eta gainerakoak salatu. Gizonek emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan egiten duten ekarpen hori eta indarkeria matxista (fisikoa, sexuala edo psikologikoa) ez onartzea eta ez justifikatzea batera datoz.

Gizonek berdintasunerantz egin beharreko aldaketan sakontzeko, beharrezkoa da indarkeria gatazkak konpontzeko metodo gisa zilegitzat jotzen duten prozesu eta diskurtsoak ukatzea. Garrantzitsua da beste pertsonen duintasunarekiko errespetutik abiatu eta negoziazio eta aukera pertsonalerako askatasunean oinarritzen diren elkarrizketa ereduen alde egitea.

Aldaketa horiek berekin dakarte gizonek alor publikoan eta boterean duten lekua birplanteatzea, emakume eta gizonek erabaki eta antolaketa alor guztietara sartzeko eta aukerak izateko berdintasuna duen gizartea askoz ere demokratikoagoa baita.

Kolektiboari dagokionez, gizonen aldaketak berekin dakar emakumeek berdintasunaren alde egiten dituzten aldarrikapenak babestea eta bere egitea. Aldi berean, beharrezkoa da

gizonek arlo pribatuan ez dezatela inongo egoera baztertzailerik balia edo hura erabili arlo publikoan –politikan, ekonomian edo gizartean– botere gehiago izateko.

Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko beharrezkoa da gizonen berdintasunezko inplikazioa; etxeko eta zaintza lanak gizonen erantzukizuna ere badirela ulertzea. Aldaketa horrekiko konpromisoa hartzea aitatasun baimena, lanaldi murrizketak edo eszedentziak baliatzearekin has daiteke.

Berdintasunaren aldeko apustuak barnean hartu behar du gizonen jarrera aldaketa beste gizonen aurrean, gizonen aniztasuna onartuz, baita sexu aukera eta joera ere, eta homofobiaren eta transfobiaren aurkako konpromiso tinkoarekin bizitzaren arlo guztietan.

E RABILITAKO BIBLIOGRAFIA

Bonino, Luis. Micromachismos. Brusela: City & Shelter, 1998 (Euro PRO-Fem, www.menpro-feminist.org).

Bonino, Luis. *Varones y abuso doméstico*, P. Sanromán, *Salud mental y ley,* Madril, AEN, 1991.

Bonino, Luis. *Obstáculos y resistencias masculinas al comportamiento igualitario: Una mirada provisoria a lo intra e intersubjetivo. Actes Séminaire internacional Les hommen en changements.* Tolosa.

Bourdieu, Pierre. *La Dominación Masculina.* Anagrama, Bartzelona, 2000.

Corsi, Jorge. *Violencia masculina en la pareja.* Paidós, Bartzelona, 1995.

Echeburúa, Enrique; del Corral, Paz. *Manual de violencia familiar*. Siglo XXI, Madril, 1998.

Emakunde. *Los hombres ante el nuevo orden social / Gizonak giza antolamendu berriaren aurrean.* Emakunde, 2001.

Emakunde. *Sare 2007. Masculinidad y vida cotidiana / Maskulinotasuna eta eguneroko bizitza* (www.euskadi.net/gizonduz).

Emakunde. *Gizonduz: La igualdad te hace más hombre / Gizonduz: Berdintasunak gizonago egiten zaitu.* 2007 (www.euskadi.net/gizonduz).

Emakunde. *Informe Violencia contra las mujeres* (www.emakunde.es).

Espada, Chema: *Hombres, motos y riesgo*. (www.heterodoxia.wordpress.com/).

Fernández-Llebrez, Fernando. *Masculinidades y violencia de género ¿Por qué algunos hombres maltratan a sus parejas (mujeres)?,* Granada, 2005.

Kaufman, Michael. *Los hombres, el feminismo y las experiencias contradictorias del poder entre los hombres*. *Theorizing Masculinities*, Oaks, 1994.

Lomas Carlos [konp.]. *¿Todos los hombres son iguales? Identidades masculinas y cambios sociales*. Paidós, 2003.

Lozoya, José Ángel. *Los hombres ante el reto de la igualdad*. Cadiz, 2007ko ekaina.

Lozoya, José Ángel. *¿Qué es eso de la identidad masculina?*

Moral Ledesma, Beatriz, [FARAPI]. *Estudio sobre siniestralidad vial y masculinidad:* Gipuzkoako Foru Aldundia, Lur eta Garraio Zuzendaritza, 2005.

Sáez Hilario. *Políticas de género para hombres*.

San Pedro, Pilar. *El mito del amor y sus consecuencias en los vínculos de pareja*. Disenso, 45, 2005eko maiatza.

Varela, Nuria. *Feminismo para principiantes*. Ediciones b, 2005.